



Hilaren 12an, festak hasi aurretik, birmargotu zuten zebraidea. HITZA

# Sanpedroak kolorez josiko dituzte

Kolorez josita hasiko dira gaur (hilak 26, ostirala) San Pedroko festak. Batetik, jaietan hainbesteko ekarpena egiten duten emakume jostunei omenaldia egingo diete beti, isilean, festei ekarpen nekaezina egiten aritu direlako. Bestetik, ortzadarraren banderaren igoerarekin LGTBIQ+ pertsonen aniztasunaren eta askatasunaren sinboloa ekarriko dute jaietara; hilaren 12an, herriko zebraidea harrotasunaren koloreekin margotu zuten, festen atariko bezala. Joan den asteburuan ere izan ziren egitarauaren barruko hainbat jarduera. Baina ofizialki hasi, gaur hasiko dira 2026ko San Pedroko festak, 20:00etan.

Hilaren 30a (asteartea) bitartean dozenaka izango dira barruti morean egingo diren ekintzak. Denak kalean dira. Klasikoak badaude, hala nola danborradak, Artzain eta Inudeen desfileak, Buztiña-Eskamak partida, Porrusalda txaranga, hainbat kirol txapelketetako finalak... Badira ospea hartzen izan, baina oraindik klasi-koen zerrendara iristeko jarraikortasun gehiago behar dituzten jarduerak ere, horien artean dela geroz eta indar gehiago duen hilaren 27ko Piratakada.

Ekitaldi guztiek badute beste ezau-garri bateratu bat: denetan sanpedrotarrak izango dira protagonista. Ez da herritarren inplikazio eta parte hartzerik gabe aurrera aterako den jarduerarik. Eta hori, bere horretan, festak arrakastatsu izango direnaren seinale da. ■

**PORTUKO PILOTUAK**

**AUPA SAN PEDRO!**

San Pedro kalea, 32  
Pasai San Pedro  
943 35 15 34  
[www.pasajespilot.com](http://www.pasajespilot.com)

## CIFP - BLAS DE LEZO - LHII



HASIERAKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK  
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

### Gora Sanpedroak!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 40 05  
[blasdelezo@pasaiaeskola.net](mailto:blasdelezo@pasaiaeskola.net)



Azken txanpan sartu da EITBko *El Conquis* saio entzutetsua. Egun gutxi barru jakingo da nork eramango duen aurten txapeldu-naren ikurrina preziatua. ETB-2ko formatuaren tentakuluak hara eta hona zabaldu dira, eta saio hori abiapuntu hartuta, *El Conquis* sanpedrotar erara egingo dute bihar (larunbata) barrutiko frontoian, Piratakada egingo baitute 17:00etatik aurrera.

Aurtengoa formatuaren bosgarren ekitaldia izango da. Pandemia garaian San Pedroko haur asko, *El Conquis*-eko probak imitatuz, ikurrinarekin ateratzen ziren kalera, eta saioan tipikoak ziren probak egiten zituzten haien artean. Garai hartan murrizketak zeuden, eta ezinezkoa zen Piratakada bezalako jarduerak antolatzea. Ohikotasuna berreskuratzean, baina, *El Conquis* moduko formatu bat antolatzea erabaki zuten Nerea Enbilek, eta arrakasta izan du San Pedron.



**lazko Piratakadaren irabazleak.** Imanol Saiz

## Karibea San Pedrora ekarriko dute bosgarrenez

**MIKEL DEL VAL GARCIA**

Telebistako saioan egiten den moduan, parte hartzaileak zazpi kideko lau taldetan banatuko dituzte, eta bakoitzak bere kapitaina izango du. Oro-tara, 28 partaide arituko dira biharko probetan. Piratakada, berez, 11 eta 16 urte arteko gazteei begirako proposamen bat dela adierazi du Enbilek, eta hasieran hurrekin bakarrik egiten zuten jarduera. Helduek, ondoren, haientzako Piratakada bat ere eskatu zuten, eta duela hiru urtetik taldeetako bat helduena da.

Talde gorria (Karramarroak), berdea (Antxetak) eta urdina (Begihaundiak) haurrenak izango dira, eta beltza (Barbarinak) helduena. Parte hartzaile guztiek sei proba osatu beharko dituzte biharko desafioan, bost gehi finala. Horiek *El Conquis*-eko proben antzekoak dira, eta partaideak orekan, indarrean, soketan, puzzleetan edota estrategian trebatu beharko dira Piratakadako ikurrina preziatua bere egiteko. ■

**Pasaia bizi, San Pedrok piztu!**

Astelehenetan:  
9:00-13:00 / 15:00-19:00  
Asteartetik ostegunera:  
9:00-20:00  
Ostiraletan: 9:00-15:00

Tel.: 943 52 41 61.  
Gure Zumardia 24, behea.  
PASAI ANTZO

Fernández - Valderrama Egaña  
**HORTZ KLINIKA**  
www.fernandezvalderramaegana.com  
info@fernandezvalderramaegana.com

**EROSKI city**

**GORA SAN PEDROAK!**

Herriko plaza, 8.  
Pasai San Pedro  
Tel.: 943 39 38 12

**zure taxia!**

**Taxi Jaizkibel**

Donibane. Antxo.  
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

**943.39.14.14**

**PASAI - LEZO LIZEOĀ**

**HERRIKO JAİETAN ERE EUSKARA AHOAN!**



**Sorgiñarri Txistulari Taldea.**  
San Pedroko Jai Batzordea

## Sorgiñarri, hiru hamarkadaz txistuari eragiten

MIKEL DEL VAL GARCIA

Herriko jaiak ezin dira txistu hotsik gabe ulertu. Edozein momentutan entzun daitezke doinu eta melodia horiek. San Pedron ere hala da, eta gaur hasiko diren sanpedroetan Sorgiñarri Txistu Taldea arduratuko da barruti morea girotzeaz. Sorgiñarri 1995ean sortutako txistulari taldea da. Hiru hamarkadako bidea osatu du jada herria girotzen, eta Jasone Sisniega kideak taldearen hastapeak gogorarazi ditu.

Sisniegak jakinarazi du txistulariak 1950eko hamarkadatik izan direla San Pedron. Barrutian Sisniega eta gainontzeko kideak baino helduagoak ziren txistulariak zeuden, eta adinez gora egiten ari zirenez errelebo bila hasi ziren. Gaur egungo Sorgiñarriko kideek hasierako haien lekukoa hartu zuten 1995ean, Sorgiñarri Txistulari Taldea sortuz.

Elkartea sortuta, bidea egiten hasi zen Sorgiñarri, eta hasiera-hasieratik kide helduagoen laguntza izan zutela adierazi du egungo txistulariak. Sis-

niegak eta beste kide batzuek musika eskolan ikasi zuten txistua jotzen, baina kaleak San Pedroko txistularien laguntzarekin bereganatu zituzten, haiekin batera ikasi baitzuten kalean jotzen.

Sorgiñarriko kideek ikusi zuten aurreko txistulariek herriko ospakizunetan edo elizaren inguruko ekitaldietan aritzen zirela txistuarekin. Bide horretan, dantzetan, kalejiretan, jaietan, San Pedrok bandera bat irabazten zuenean edota jaunartzeetan hartzen zuten parte. Hasierakoek irekitako bideari jarripena eman diote Sorgiñarri, eta, bereziki, herriko festetan, ospakizunetan edo ekintza kulturaletan aritzen dira, ekitaldi horiek txistuarekin girotzeko. Kontzertuak eta antzekoak ere egiten dituzte tarteka, baina gehienbat ospakizun kutsuko ekitaldietan aritzen dira txistuarekin.

### Sanpedroetara begira

Sorgiñarri San Pedron egiten dituen jardura gehienak, eta urtero bezala, aurretik ere sanpedroetan izango dira herria girotzen. Hirutan hartuko dituzte San Pedroko kaleak. Gaur buruhandiek batera arituko dira barrutiko txoko guztietan, 17:30etik aurrera.

Astelehenean (hilaren 29an), aldira, San Pedro egunean, dieran aterako dira 10:00etan, eta buruhandien eta erraldoien desfilean 18:30ean. Aurtengo txistularien ekarpena hiru une horietara mugatuko bada ere, Sisniegak baietsi du herriak badakiela Sorgiñarriekin edozein momentutan kontu dezaketela edozein jardura prestatzeko. ■

**INDEPENDENTZIA  
SOZIALISMOA  
FEMINISMOA**

@antxetasanpedro

# Jai zorientsuak opa dizkizuegu! Aupa San Pedro!





## EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Imanol Saiz

### LEHEN ORDUETAN, BI DANBORRADA

**GAUR (OSTIRALA).** Gaurko txupinazoa hasi baino lehen, eta ondoren, bi danborrada izango dira San Pedron. Lehen haurrena da, 18:30ean aterako dira haur burrunbariak portuko etxeetatik. 22:00etan, berriz, helduen segizioaren txanda Gatzagatik abiatuta.



Urko Etxebeste

### PORRUSALDA TXARANGA, KOLOREZ BETEA

**BIHAR (LARUNBATA).** San Pedroko festen berezitasunetakoa da Porrusalda Txaranga. Bihar (larunbata) izango da zeharkatzen barrutia. Txarangaren laguntzarekin, koloretako puxikadun haur eta helduek orotarazten dute festak ez direla bakarrik gau giroan dabiltzanenak, beraz, 11:30ean hasita herriari bira sakona emango diote kantu eta giro on artean.



HITZA

### ARTZAIN ETA INUDEAK, KLASIKOA

**ETZI (IGANDEA) ETA ASTELEHENEAN.** Zer lirateke sanpedroak Artzain eta Inudeen desfilerik gabe? Festak egingo lirateke, bai, baina barrutiaren izaeraren zati bat galduko litzateke hain errotua dagoen jarduera hori gabe. Helduen Artzain eta Inudeak etzi (igandea) aterako dira 12:00etan; haurren desfilea, berriz, astelehenarekin izango da (12:00).

**PASAIKO UDALA**

**ERASO SEXISTARIK ETA  
LGTBOFORIK GABEKO JAIK!**

**FIESTAS SIN AGRESIONES  
SEXISTAS NI LGTBOFOS**

**PASAI**  
BATERA GARENA  
COMPARTIENDO, SOMOS

**¡¡**

**¡¡**